

99. FITXA GIPUZKOA – Gipuzkoako udalerrietan, Euskadiko Antzerki Sarean integratutako antzerkietan, arte eszenikoen eta musikaren urteko programazioa egiteko eta arte eszenikoak sustatzeko programak egiteko dirulaguntzak (Euskadiko Antzoki Sarea)

Nori zuzendua: toki-erakundeak eta haien mendeko erakundeak, bai eta toki-erakundeen edo haien mendeko erakundeen elkarteak ere, baldin eta deialdian adierazitako baldintzak betetzen badituzte.

Sarbide-esteka: [Egoitza Elektronikoa - Gipuzkoako Foru Aldundia](#)

Erreferentziazko araudia: [FA-KG-2025-0115 Foru Agindua, 2025eko martxoaren 3koa, 2025eko ekitaldiko deialdia onartzen duena, Gipuzkoako udalerrietan, Euskadiko Antzerki Sarean integratutako antzerkietan, arte eszenikoen eta musikaren urteko programazioa egiteko eta arte eszenikoak sustatzeko programak egiteko dirulaguntzak emateko \(Euskadiko Antzoki Sarea\)](#)

Eremuak: Kultura

Zenbatekoa: 299.800 €

Eskabideak aurkezteko epea: 2025/06/16tik 2025/09/26ra

Laburpena

Dirulaguntza hauen helburua Gipuzkoako udalerrietan **arte eszenikoen eta musikaren alorreko urteko programazioa** finantzatzea da.

Ondorengo baldintzak betetzen dituzten toki-erakundeek eta horien mendeko erakundeek eskatu ahal izango dituzte laguntzak:

- Ekipamendu eszeniko egonkorra izatea (antzokia, auditorioa), proposatutako programazioaren beharretara egokitua, indarrean dagoen legeriak eskatzen dituen segurtasun-neurri guztiak beteko dituen eta programatzen diren ikuskizunetarako erantzukizun zibileko aseguruia izango duena.
- Parte hartuko duten konpainia edo artisten kontratazio-gastuak bere gain hartu ahal izateko dagokion aurrekontu-partida izatea.
- Programazio-arduradun bat izatea, gauzatzen diren programen antolaketa-alderdi guztiak Euskadiko Antzoki Sarearekin koordinatuko dituen.

d) Arte eszenikoen urteko programazio egonkorra egitea.

Onuradun izan daitezke, halaber, toki-erakundeen edo haien mendeko erakundeen elkarteak, baldin eta, nortasun juridikorik ez izan arren, aurreko baldintzak betez, proiektuak, jarduerak edo portaerak gauzatu baditzakete edo dirulaguntza ematea eragin duen egoeran badaude.

Diruz lagundu daitezkeen jarduerak

A) Honako baldintza hauek betetzen dituzten arte eszenikoen eta musikalen emanaldien urteko programazioa:

1. Arte eszenikoen programazioa: Urteko programak gutxienez 6 ikuskizun ezberdin izan behar ditu.
2. Musika-programazioa: Urteko egitarauak urtean gutxienez 4 kontzertu izan behar ditu, eta horietatik 2 euskararen lurralderen batean edo Euskal Herrian egoitza duten talde edo artistek ekoitzi beharko dituzte.

Arte eszenikoen zein musikalen emanaldiek honako baldintza hauek bete beharko dituzte:

- Talde edo artista profesionalek ekoitzitakoak izatea.
- *Caché* kontzeptuan ordainketa bat egotea.
- Aipatutako ekipamendu eszeniko egonkorretan gertatzen direnak.
- Publikoarentzat doakoak ez izatea.

B) Tokiko ingurunean arte eszenikoak sustatzeko programak, udal-titulartasuneko konpainia eszenikoen eta espazio eszenikoen arteko lankidetzan eginak.

Laguntza hauetatik **kanpo** gelditzen dira, espresuki, programa edo jarduera hauek:

- a) Dirulaguntza izendunaren xede direnak edo erakunde honen beraren beste deialdi batzuetatik dirulaguntza jasotzen dutenak.
- b) Urteko programazioen kasuan, aurreikusitako *caché*-en baturak 20.000 euro gainditzen ez dituenen.
- c) Musika-emanaldiak soilik dituzten programazioak.
- d) «Leihatila bidezko» ikuskizunak espreski kontratatzea.

Gastuetarako aldi hautagarria

Dirulaguntzaren xede diren jarduerak **2025eko urtarrilaren 1etik 2025eko abenduaren 31ra** bitartean burutu beharko dira.